

nikus  
ker.

Youtube

**39. TXOSTENA · 2023KO OTSAILA**



# AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER.....	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK .....	3
3. EMAITZAK.....	4
3.1 YOUTUBE.....	4
3.2 YOUTUBEKO SORTZAILEAK.....	12
4. LABURREAN.....	14

# 1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Ikerketa burutzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.

Egitasmo hau, 2018-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.



**UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea**

**Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)**

**+34 747 414 355**

**[ikusiker@ehu.eus](mailto:ikusiker@ehu.eus)**

## 2. OHAR METODOLOGIKOAK

Ikerketa burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkor eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak ([www.encuestafacil.com](http://www.encuestafacil.com) plataforma erabiliz), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2023ko urtarrilaren 9tik 15era bitartean, Youtube sare sozialari buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 18 eta 23 urte bitarteko 1.927 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentuan, Youtuberren gaineko galderen emaitzak eskaintzen dira: irismena, koneksioa maiztasuna, erabilera desberdinak, jarraitzen diren perfilak eta balorazio orokorra, besteak beste, Era berean, Youtubeko sortzaile direnen ohituren emaitzak ere aztertzen dira: zer motatako edukiak sortzen dituzte, eta zein hizkuntzatan, esate baterako.

### 3. EMAITZAK

#### 3.1 YOUTUBE


Inkesta honetan Youtuberi buruz galdetu da bereziki, zer-nolako edukiak ikusten diren eta sortzen diren. Youtuben azkenekoz martxan edukitako aldiari buruz galdeginda, plataforma martxan zeukaten bitartean inkestatuen %39,5 ez ziren beste ezer egiten ari (“pantailara begira nengoen, besterik ez nenbilen egiten”); hau da, hamarretik sei baino gehiago beste zerbait egiten ari ziren aldi berean.

Egiten ari ziren gauza horien artean bi nabarmentzen dira bereziki: ikasi edo etxeko lanak egitea (%21,0k aukeratuta) eta jatea (%19,2k esana). Ondoren, hirugarren lekuan, etxeko txukunketa lanak egitea adierazten da (%5,1ek aukeratuta).

##### 1. Irudia – Youtube martxan zenuen bitartean zertan ari zinen?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Pantailara begira nengoen, besterik ez nenbilen egiten	757	39,5
Ikasten nenbilen ala etxerako lanak egiten	403	21,0
Jaten nengoen (bazkaltzen, afaltzen...)	368	19,2
Etxea txukuntzen, platerak garbitzen... halako lanetan nengoen	97	5,1
Youtubeko edukiekin erlazioatutako jarduerak burutzen nenbilen (ariketa fisikoa, tutorialak, esku-lanak egiten...)	62	3,2
Jolasean nenbilen	42	2,2
Lagunekin nengoen bertan, fisikoki	33	1,7
Garraio publikoan nengoen	33	1,7
Lagunekin nengoen sare sozialen bidez konektatuta	12	0,6
Beste bat	108	5,6
<b>Guztira</b>	<b>1.915</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Ikusiker, Applika+




Youtubeko kategorien artean gustukoena dutenaz galdetuta, “youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak” eta “musika” dira gai nagusiak, inkestatuen %54,0 biltzen baitituzte (%27,9k aukeratu dute lehena eta %26,1ek bigarrena). Hortik aurrera, honako kategoriak aipatu dira gehien, ehuneko hirutik gora: elkarrizketak (%6,8), podcastak eta irratia (%6,1), makilajea eta moda (%5,4), kirol mundua (%4,2), komedia, memeak eta parodiak (%4,1) eta futbola (%3,0).

## 2. Irudia – Zein da Youtuben gustukoena duzun gaia edo kategoria?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak	535	27,9
Musika	500	26,1
Elkarrizketak	130	6,8
Podcastak eta irratia	116	6,1
Makilajea eta moda	103	5,4
Kirol mundua	80	4,2
Komedia, memeak eta parodiak	79	4,1
Futbola	58	3,0
Zinea eta serieak	51	2,7
Ariketa fisikoa (cardio, fitness, yoga...)	36	1,9
K-pop eta k-dramak	23	1,2
ASMR	20	1,0
Albisteak eta politika	18	0,9
Eskulanak eta DIY (Do It Yourself)	15	0,8
Animazioa	12	0,6
Anime	11	0,6
Bestelakoa	128	6,7
<b>Guztira</b>	<b>1.915</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Ikusiker, Applika+




Youtuberen erabilera maiztasunari erreparatuta, erdia pasak gutxienez egunean behin erabiltzen du, %50,4k; are gehiago, %18,7k egunean behin baino gehiagotan erabiltzen duela dio. Beste erdiaren kasuan, astean behin baino gehiagotan erabiltzen dutenak dira nagusi (%29,1ek dio

asteen 2-5 aldiz erabiltzen dutela); asteen behin edo gutxiago erabiltzen dutenak %19,4 dira, eta %1,1 inoiz erabiltzen ez dutenak.

### 3. Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu Youtube?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inoiz ez	21	1,1
Hilean behin	130	6,8
Astean behin	242	12,6
2-5 aldiz asteen	557	29,1
Egunero	606	31,7
Egunean behin baino gehiagotan	358	18,7
Guztira	1.914	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Panelisten arabera Youtube plataforman batez beste egunean 53,8 minutu pasatzen dituzte. Era berean, pasa nahiko luketen denborari buruz pentsatzen jarrita, %67,8k konforme dagoela adierazten du (“ez gehiago eta ezta gutxiago ere” aukeran kokatu dira). Hala ere, ikasleen laurden batek denbora gutxiago pasa nahiko lukeela adierazten du (%17,7k “apur bat” gutxiago eta %8,0k “askoz” denbora gutxiago), eta %6,5ek denbora gehiago pasa nahiko luke (%6,1ek “apur bat gehiago” eta %0,4k “askoz denbora gehiago”).


### 4. Irudia – Aukera izango bazenu, denbora gehiago ala gutxiago pasatuko zenuke Youtube ikusten?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Askoz denbora gutxiago	153	8,0
Denbora apur bat gutxiago	339	17,7
Ez gehiago, ezta gutxiago ere	1.299	67,8
Denbora apur bat gehiago	117	6,1
Askoz denbora gehiago	7	0,4
Guztira	1.915	100,0
<b>Youtuben pasatako batezbesteko denbora egunean, minututan</b>	<b>53,8</b>	

Iturria: Ikusiker, Applika+



#### Batezbesteko denbora, minututan



Youtubeko ekintza batzuk zein maiztasunekin egiten diren ere galdetu da. Galdetu diren ekintza guztien artean bi dira, beste guztien aldean nabarmen, askoz gehiago egiten direnak; datuen argitan, esan daiteke plataformarekin harremantzeko bide aktiboenak direla gutxien erabiltzen direnak eta pasiboenak gehien.

“Beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi” aukera da gehien aipatzen dena: egunero behin baino gehiagotan egiten dute inkestatuen %30,6k, egunero edo ia egunero %27,7k, eta astean behin baino gehiagotan %15,7k. Bigarren maiztasun handiena “bideoetan ‘atsegin dut’ edo ‘ez dut atsegin’ eman” aukerak jaso du, %7,7k egunero behin baino gehiagotan egiten baitu, %12,8k egunero edo ia egunero, eta %17,0k astean behin baino gehiagotan. Hala ere, ikasleen ia erdiak dio (%47,2) ez duela inoiz edo ia inoiz “atsegin dut” edo “ez dut atsegin” erreaktziorik ematen.


Hurrengo bi ekintzak inkestatuen hamarretik zortzik baino gehiagok ez ditu inoiz egiten: bideoetan iruzkinak edo aipamenak idatzi (%12,4k astean behin edo gehiagotan) eta norberak grabatu eta editatutako bideoak igo (%5,1ek astean behin edo gehiagotan). Bukatzeko, azken bi ekintzak inkestatuen hamarretik bederatzik baino gehiagok ez ditu inoiz egiten: beste baten bideoa igo eta zuzenekoak egin (live).



## 5. Irudia – Zein maiztasunekin egiten diren ekintza batzuk Youtuben

	Inoiz ez ala oso gutxitan	Hilean behin baino gehiagotan	Astean behin	Astean behin baino gehiagotan	Egunero edo ia egunero	Egunero behin baino gehiagotan
Beste erabiltzaileek igotako edukiak ikusi	6,0	8,5	11,5	15,7	27,7	30,6
Bideoetan atsegin dut edo ez dut atsegin eman	47,2	6,0	9,4	17,0	12,8	7,7
Bideoetan iruzkinak/aipamenak idatzi	81,1	6,4	5,2	5,2	1,3	0,9
Nik grabatutako eta editatutako bideoa igo	83,4	11,5	1,7	2,6	0,0	0,9
Beste baten bideoa igo	94,5	0,9	1,3	3,4	0,0	0,0
Zuzenekoak egin (live)	94,5	0,9	2,1	0,9	1,7	0,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Youtube ikusteko erabiltzen den gailu nagusia telefono mugikorra da, %42,0k hala erabili baitu. Hala ere, argitu behar da ikasleek betetako inkestan ez zela aukera bezala jarri gailu hau, beraz, %42,0k 'beste' kategoria barruan aukeratu du telefono mugikorra. Ondoriozta daiteke, aukera bezala jarri izan balitz, ikasle gehiagok aukeratuko luketela (aurreko urteko inkestan %60,3k markatu zuen aukera hau). Telefono mugikorraren ondoren, ordenagailu eramangarria dator, panelisten herenak aukeratua (%33,9k). Tableta %13,5ek aipatu dute, mahaiko ordenagailua %6,2k eta telebista pantaila %4,1ek.

## 6. Irudia – Zein da gehien erabiltzen duzun gailua Youtube ikusteko?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ordenagailu eramangarria	649	33,9
Tableta	259	13,5
Mahaiko ordenagailua	118	6,2
Telebista pantaila	79	4,1
Bideo-kontsola	6	0,3
Bestelakoak: Mugikorra	806	42,0
Guztira	1.917	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+

\*Oharra: 'Mugikorra' ez da aukeren artean jarri inkesta honetan. Beraz, 'bestelakoak' sakatu duten ikasleek modu irekian esan dute gailu hori erabiltzen dutela




Zein eduki ikusi erabakitzeko gomendioak nondik jasotzen dituzten ere galdetu da, iturri nagusia (bakarra) adierazteko eskatuz. Inkestatu ia guztiak hiru iturritan bildu dira: erdiek baino gehiagok Youtubeko proposamenen atala aukeratu dute, %52,3k; %20,4k sare sozialak aipatu dituzte eta %19,1ek lagunak.

## 7. Irudia – Youtuben zer ikusiko duzun erabakitzeko orduan, nondik jasotzen dituzu gomendioak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Youtubeko proposamenen atala	1.003	52,3
Sare sozialak	390	20,4
Lagunak	365	19,1
Familia	29	1,5
Webguneak	28	1,5
Plataformak edo hornitzaileak (Netflix, HBO, Movistar...)	17	0,9
Publizitatea	16	0,8
Telebista tradizionala	5	0,3
Komunikabide tradizionalak (egunkariak, aldizkariak, irratia)	2	0,1
Beste bat	61	3,2
Guztira	1.916	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Youtuben ikusten diren edukiak zein hizkuntzetan egon ohi diren galdetuta, bi hizkuntza aipatzen dira bereziki: gaztelania da nagusi inkestaturen %76,6ren kasuan, eta %19,2ren kasuan ingelesa. %2,1ek aipatu du euskara Youtuben ikusten dituen edukietako hizkuntza nagusi moduan.

### 8. Irudia – Zein hizkuntzatan ikusten dituzu gehien bideoak Youtuben?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Gaztelania	1.465	76,6
Ingelesa	368	19,2
Euskara	40	2,1
Frantsesa	2	0,1
Beste bat	37	1,9
Guztira	1.912	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Plataforma honi emango lioketen puntuazioaz galdetuta, 0 eta 10 bitarteko eskala batean, 7,3ko puntuazioa jaso du batez beste. %48,6k 8 eta 10 bitarteko puntuazio bat aukeratu du, %48,0k 5 eta 7 bitartekoa, eta inkestaturen %3,4k aukeratu du bostetik beherako puntuazio bat.

9. Irudia –Youtuberi buruzko balorazio orokorra eman beharko bazenu, nolako nota jarriko zenioke?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
0	2	0,1
1	8	0,4
2	3	0,2
3	22	1,1
4	30	1,6
5	140	7,3
6	218	11,3
7	564	29,4
8	646	33,6
9	214	11,1
10	74	3,9
Guztira	1.927	100,0
<b>Batez besteko balorazioa</b>		<b>7,3</b>

Iturria: Ikusiker, Applika+



**Batezbesteko balorazioa**




## 3.2 YOUTUBEKO SORTZAILEAK

Youtuben edukirik sortzen al duten galdetuta, gehienek ezetz adierazi dute (%87,9k). Edukiren bat sortzen dutela esan duten 234 pertsoneri (% 12,1) galdera gutxi batzuk egin zaizkie plataforma honetan egiten duten sormen lanari buruz.

10. Irudia – Sortzen ahal duzu Youtuben edukirik? Youtuben edukiak ikusteaz gain, igo al duzu inoiz bideorik edo egin duzu inoiz zuzenkorik?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai	234	12,1
Ez	1.693	87,9
Guztira	1.927	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Gehien sortzen diren eduki moten inguruan galdetuta, panelisten artean gehien aipatu den kategoria “gamer estiloko bideoak” izan da (%21,1ek aipatuta). Tarte handi xamarrera aurkitzen diren ondorengo kategoriak: “komediazko bideoak” (%7,2), “kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten dituzten bideoak” (%6,7) edota “lagunekin egindako bilkuren bideoak” (%6,3k).

11. Irudia – Youtuberako sortzen dituzun bideo eta eduki horien artean, zein da gehien sortzen duzun eduki mota?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Gamer estiloko bideoak	47	21,1
Komediazko bideoak	16	7,2
Kantuen bertsioak eta kantu propioak abesten dituzten bideoak	15	6,7
Lagunekin nagoela egindako bideoak	14	6,3
Vlogak	10	4,5
Tutorialak (makillajea, moda, eskulanak, kirola...)	10	4,5
Kirol bideoak	10	4,5
Youtuber estiloko bideoak	9	4,0
Zuzenekoak (live)	5	2,2
Iritzi edo kritika bideoak (reviews)	4	1,8
Unboxing bideoak	2	0,9
ASMR bideoak	1	0,4
Podcastak	1	0,4
Ekitaldiei buruzko bideoak (kontzertuak, hitzaldiak, jaialdiak...)	1	0,4
Bestelakoak	78	35,0
Guztira	223	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+




Hizkuntzari dagokionez, bostena eskasek adierazten du (%18,1k) euskarak gaztelaniak besteko pisua edo gehiago duela sortzen dituen edukietan. Hala ere, talderik handiena edukiak beti gaztelaniaz sortzen dituenena da, %48,9 baitira.

## 12.Irudia – Zein hizkuntzatan sortzen dituzu bideoak?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Beti euskaraz sortzen ditut edukiak.	40	18,1
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago sortzen dut.	20	9,0
Bai euskaraz eta bai gaztelaniaz proportzio berdinean sortzen dut.	13	5,9
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago sortzen dut.	15	6,8
Beti gaztelera sortzen ditut edukiak.	108	48,9
Euskara eta gaztelera ez diren beste hizkuntza batean gehiago	25	11,3
Guztira	221	100,0

Iturria: Ikusiker, Applika+



## 4. LABURREAN

- Panlisten % 54k, “youtuberrak, gamerrak eta vlogerrak” kategoria uakertu dute Youtubeko kanal gustukoenen artean.
- Youtube erabiltzeko duten maiztasunari erreparatuta, %50,4k egunean behin erabiltzen du, eta plataforman batez beste 53,8 minutu pasatzen dituzte egunean.
- Youtube ikusteko erabiltzen den gailu nagusia telefono mugikorra da, %42,0k hala erabili baitu.
- Gomendioak nondik jasotzen dituzten galdetuta, panelisten %52,3k adierazten du iturri nagusia Youtube bera dela.
- Plataforma honi emango lioketen puntuazioaz galdetuta, 0 eta 10 bitarteko eskala batean, 7,3ko puntuazioa jaso du batez beste.